

Nola eztabaidatu arerioekin

Antonio Gramscik kartzelan idatzitako 15. koadernoan, 11. atala: kritika zorrotzean ari da intelektual marxista sardiniarra, Nikolai Bukharinen *Materialismo historikoaren teoria* liburuari aurkitu dizkion ahulguneak banaka-banaka esplikatzen. Halako batean, ordea, badirudi langintza zehatz horretatik burua altxatzeko premia sentitu duela, irizpide orokorrago baten berri emateko:

Ez da oso «zientifikoa», ezta «oso serioa» ere, arerioak aukeratzea ergelenean edo erdipurdikoenen artean; edo arerioen iritzien artean hautatzea funts gutxien dutenak eta noizbehinkakoenak, gero harrotzeko esanez arerioa «osorik» «suntsitu» duzula haren bigarren mailako iritzi oharkabeko bat suntsitu duzulako, edo ideologia bat edo doktrina bat suntsitu duzula, haren hirugarren edo laugarren mailako gidarien ezintasun teorikoa agerian utzi duzulako. Are gehiago: «arerioekin justuak izan beharra dago», alegia, saiatu behar dugu konprenitzen zer esan nahi izan duten benetan, eta ez geratu, maleziaz, haien espresioen axaleko eta berehalako esanahietan. Hori, noski, gure jarraitzaileen tonua eta maila intelektuala goititu nahi baditugu, eta ez gure inguru osoa basamortu bilakatzen tematu.

Pasarteak badu halako kutsu klasiko bat, Platonen *Gorgias*-eraino eramanean gaitzakeena, Sokratesen eta Poloren arteko eztabaidara, konkretuki: erretorika hutsaren arriskuak, sofistaren eta filosofoaren arteko diferentzia.

Pasarteak, era berean, gaurko joera bati egindako kritika dirudi: sare sozialetan eztabaidak irabazteko trikimailutxoak, auzi konplexuenak kolpe batean ebazteko joera sinplifikatzaileak, falaziaz josiriko iritzi-demak.

Pasarteak, noski, Joxe Azurmendi ekartzen dit gogora. Haren liburuak irakurtzen hasi nintzen garaian, Euskal Herriari buruzko diskurtso mediatikoa hain zegoen kutsatua, ezen arerioen edozein iritzi zuzenean propaganda antieuskaldunaren kontainerrera botatzeko tentazioa han-

diegia baitzen. Barre egiteko asmo hutsez sintonizatzen genituen aznarismoaren tertulia ofizialak, guri buruzko zer astakeria kontatzen zuten begiratzen genuen Espainiako eskuinaren egunkarietan –baita progre-larruz jantzitakoetan ere–. Egin al zitekeen beste ezer 2000ko hamarkadaren lehen erdi hartan, oraingo harroaldi ultraren entsegu orokorra –Irak, ilegalizazioak, *Egunkaria*, M-11– bizitzen ari ginenean?

Bai, egin zitekeen. Giro horretan *Euskal Herria krisian* edo *Demokratak eta biolentoak* irakurtzeak –eta pixka bat geroxeago *Espainiaren arimaz, Volksgeist - Herri gogoa...*– bidea irekitzen zizun gauzak beste modu batera planteatzeko. Ikusten zenuen Azurmendi eztabaidatzen Juaristi baten, Fusiren edo Finkielkrauten testuekin, eta konturatzen zinen zer serio aztertzen zituen haien argudioak. Ez dago deskalifikazio pertsonalik, burlarik, nagusikeriarik. Bai, ordea, haien funtsezko ideiak zalantzan jartzeko ariketa etengabea, arrakalak non dauzkaten erakusten saiatzekoa, xehetasun txikieneraino jaitsiz.

Esker txarreko lanak, inondik ere: zertarako hasi horrelakoetan, irakurriko ez badituzte; irakurtzen badituzte ere, erantzuteko lanik hartuko ez badute. Zertarako, ideia horien atzean estatuak, armadak eta epaileak baldin badaude, arrazoiaren indarrarekin baino, indarraren arrazoiarekin jarduteko beti prest.

Azurmendi ez zen haiei begira ari, ordea, guri begira baizik. Haren obra uler liteke euskaldunoi egindako dei gisa, gure problemak koska bat –tira, koska asko– estutuz pentsa ditzagun. Autodefentsa intelektualerako tresnak eman dizkigu, ez bakarrik hedabideetako propagandisten arrazoi zarakatuei erantzun ahal izateko, ezpada eguneroko ideologia banal horri eusten dioten zutoinak identifikatzeko eta haien sendotasuna zenbaterainokoa den probatzeko ere. Erakutsi digu zein emankorra izan daitekeen auzi publikoei buruz aritzean umiltasunez eta autoexijentziaz jardutea. Gaitasun infinituki urriagoekin ariko bagara ere, gorde dezagun ondo jarrera hori behintzat.